

BEASAINDIK



Beasain Udalak

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Gure ondareari distira ematen

Igartza reafirma su valor histórico y
su compromiso con la sostenibilidad



Eraiki dezagun
Beasain
zaintzailea
guztion artean

—
04-05



Beasain mugikortasuna, orain
denbora errealean zure
mugikorrean

—
06



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Nola zaindu, hala bizi

Gizarte gisa dugun erronkarik handienetako baten aurrean gaude: nola eta zein baliotan oinarrituta zaindu nahi dugun elkar. Bizitza opari zoragarria da, eta urteen joanarekin edo egoera desberdinen aurrean laguntza behar dugunean, pertsona bakoitzak bere etxean eta bere herrian duintasunez bizitzen jarraitzea nahi dugu. Hori ez da nahia soilik; bermatu behar dugun eskubidea da.

Horregatik, Beasaingo Udalean ez dugu zaintza kudeaketa administratibo huts gisa ulertzen. Zaintza gure komunitatearen bihotza da. Pertsonak erdigunean jarriko dituen eredu berri baterantz urratsak ematen ari gara, zaintzen gaituztenak zaintzen dituen eta laguntza behar duen orori babesa emango dion Beasain eraikitzeko.

Cuidar para vivir mejor

Nos encontramos ante uno de los mayores retos como sociedad: definir cómo queremos cuidarnos mutuamente. Queremos garantizar que cada persona, necesite el apoyo que necesite, pueda seguir viviendo con dignidad en su hogar y en su municipio. En el Ayuntamiento no entendemos el cuidado como una mera gestión, sino como el corazón de nuestra comunidad. Por ello, impulsamos un nuevo modelo centrado en las personas, que proteja tanto a quienes reciben cuidados como a quienes los prestan. Este camino exige la implicación de todas y todos; no

Baina bide hau ezin dugu udal bulego batetik bakarrik marraztu. Zaintza denona eta guztiontzat da. Horregatik da hain garrantzitsua abiatu berri dugun prozesu parte-hartzailea. Zure ahotsa, zure esperientzia eta zure ikuspegia ezinbestekoak dira beasaingar guztiontzat bidezkoa eta eroso izango den herria diseinatzeko.

Eskerrik asko proiektu honetan sinesten duzuen guztioi. Gonbidatuta zaudete bide honetan gurekin batera ekitera eta etorkizuneko Beasain zaintzailea elkarrekin eraikitzera.

podemos diseñarlo solos. Tu voz y tu experiencia son fundamentales. Te invito a participar activamente en este proceso participativo para construir juntos el Beasain cuidador del futuro.



¿Cómo nos queremos cuidar mutuamente en Beasain?

*En marcha el nuevo
proyecto para decidir el
modelo de cuidados*

El Ayuntamiento de Beasain, junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa y Matia Instituto, ha presentado el proceso participativo para diseñar el nuevo ecosistema de cuidados del municipio.

El proyecto busca transformar el modelo de atención centrándolo en las personas, garantizando que todas y todos los beasaingarras puedan desarrollar su proyecto de vida con dignidad, independientemente de su edad, género o necesidades de apoyo. En el acto del Palacio de Igartza participaron cerca de 40 personas de perfiles muy diversos, demostrando el compromiso de la ciudadanía. De septiembre a mayo de 2027 se celebrarán cinco sesiones abiertas para diagnosticar la situación y elaborar de forma compartida el plan futuro de cuidados de Beasain. Para participar o recibir más información: **llamar a 620 43 60 59 o escribir maddalen.cardenas@matia.eus**



Nola elkar zaindu nahi dugu Beasainen?

Zaintza-eredua herritarrekin batera erabakitzeko egitasmo berria abian da

Beasain zaintzaileago eta inklusiboago bat eraikitzeko urrats sendoa eman du Udalak. Herriaren izaera propioa eta berezitasunak ardatz hartuta, zaintza-eredua eraldatzeko proiektu berria abiatu da. Egitasmo honen xede nagusia herritar guztiei beren bizi-proiektua duintasunez garatzeko baldintzak bermatzea da, pertsona orok, edozein adin, genero edo zaintza-behar izanda ere, eskubide osoko beasaindarra izaten jarrai dezan.

Komunitatearen ahotsa eta erantzukidetasuna

Erronka hau ez da Udalarena soilik; herri osoaren egitasmo partekatua da. Igartzan egindako lehen topaketan ia 40 pertsonak hartu zuten parte, profil eta adin aniztasun handia erakutsiz. Parte-hartzaileen konpromisoak argi utzi du zaintzak beasaindarraren egunerokotasunean duen garrantzia. Prozesu honen bidez, komunitate erresiliente eta lagunkoiak eraiki nahi dira, isolamendua prebenituz eta pertsona guztien arteko elkarbizitza eta babes-sareak indartuz.

★ Zaintza-eredu berria ez da Udalarena soilik: komunitate osoaren inplikazioarekin eraikiko dugun egitasmo partekatua da

Bost lan-saio ireki herriaren etorkizuna finkatzeko

Udalak, Aldundiak eta Matia Institutuak bost lan-saio egituratu dituzte irailtik 2027ko maiatzera bitartean. Hitzordu bakoitza publikoa eta irekia da, eta herriko zaintza-mapaketa egiteko, erronkak aztertze eta adibide inspiratzaileak ezagutzeko balio izango du. Prozesuaren amaieran, herri-topaketa batean aurkeztuko dira ondorio nagusiak eta etorkizuneko zaintza-plana.

Datu nagusiak:

Parte-hartzea irekia da.

Gidaritza eta lankidetzak: **Beasaingo Udala, Gipuzkoa-ko Foru Aldundia eta Matia Institutua.**

Egutegia: **5 lan-saio ireki 2026ko irailtik 2027ko maiatzera bitartean**

Parte-hartzeko bideak eta informazioa: **Deitu 620 43 60 59** telefonora edo idatzi **maddalen.cardenas@matia.eus** helbidera.



Igartzako Monumentu Multzoak argiteria berria estreinatu du

Herriko altxor historiko eta kulturalari garrantzia ematea eta azpiegitura eguneratzea izan da proiektuaren helburua.

Beasainek bere ondare historiko nagusia balioan jarri du barruko eta kanpoko argiteria osoa berrituz. Proiektu honek doitasun teknologikoa, jasangarritasuna eta ondarearen errespetua uztartzen ditu.

Beasaingo Udalak esku hartze hau burututa, azken urteetako behar bati erantzuna eman dio. Inbertsio honekin, udalerraren erakusleho nagusiaren xarma historikoa azpimarratu eta azpiegitura energetiko gaurkotua lortu da.

• Teknologia aurreratua:


Kanpoko fatxadetan, zubian zein barruko aretoetan LED teknologia aurreratuena instalatu da. Kolore-tenperatura epelak eta argi-fokuratzeko adimendunak eraikin bakoitzaren egurra zein harria nabarmentzen dituzte.

• **Jasangarritasuna:** zaharkitutako sistemak mantentze-kostu handiak eta kontsumo altua zituen. Horrez gain, eraginkortasuna hobetu eta inguruko naturari —bereziki Oria ibaia— eragiten dion argi-kutsadura nabarmen murriztea lortu da.

• **Zer lortu da?** Urteko energia-aurrezpen handia, CO₂ isurien murrizketa eta bisitarien esperientzia bisual bikaina, gaueko zein barruko ibilbideak seguruago eta erakargarriago eginez.

Igartza gure historian argi-iturri izan da, eta gaurtik aurrera, etorkizun jasangarri baten erakusle ere bada.

Guztira **555.550,76 euroko inbertsioa** egin da Europar Batasunaren Next Generation funtsei esker.



★ Beasain mejora la iluminación de Igartza con tecnología LED para poner en valor su patrimonio y avanzar hacia un modelo más sostenible




El patrimonio resplandece: nueva iluminación en Igartza

El Ayuntamiento de Beasain renueva la iluminación interior y exterior del Conjunto Monumental de Igartza, aunando eficiencia energética y respeto al patrimonio.

Esta inversión estratégica sustituye los antiguos sistemas por tecnología LED de vanguardia. La actuación destaca la belleza arquitectónica de la madera y la piedra, reduce la contaminación lumínica en el entorno del río Oria y logra un significativo ahorro energético. Igartza reafirma su valor histórico y su compromiso con la sostenibilidad.

Se ha realizado una **inversión total de 555.550,76 euros** gracias a los fondos Next Generation de la Unión Europea.



Mugikortasuna Beasainen, orain zure mugikorrean denbora errealean!



Beasaingo Udalak garraioari eta mugikortasunari buruzko tresna adimentsu berria jarri du abian Udal Aplikaziozko 'Mugikortasuna' atalean. NEXT-STATION proiektuaren proba pilotu honi esker, beasaindarrek denbora errealean kontsulta ditzakete beren eguneroko joan-etorriak hobeto antolatzeko datu nagusiak: Bernedoeneako parkineko plaza libreak, alokairuko ibilgailu elektrikoen erabilgarritasuna,

Barrendain plazatik igarotzen diren autobusei buruzko xehetasunak (iritsiera-ordua, jatorria eta plaza libreak) eta hurrengo trenen noranzkoa zein iristeko denbora.

Teknologia irekian oinarritutako zerbitzu aitzindari hau datoen hilabeteetan fintzen joango da herritarren erabilera-esperientziarekin, eta etorkizunean Barrendain plazan kokatuko den panel digitalean ere egokituko da.

La movilidad de Beasain, en tiempo real

El Ayuntamiento activa en la app municipal dentro del apartado 'Movilidad' el servicio NEXT-STATION. Permite consultar en tiempo real las plazas libres en Bernedoenea, coches eléctricos, autobuses en Barrendain plaza y llegada de trenes.



Konekta zaitez

Antzizarrekin: App

berria kiroldegiko

zerbitzuak

mugikorrean izateko

Antzizar Kiroldegia ikasturte berrirako sakeleko telefonorako App berria aurkeztu du. Erreminta digital honi esker, erabiltzaileek eta bazkideek kiroldegiko zerbitzu nagusiak poltsikoan izango dituzte eguneko 24 orduetan. Mugikorreko aplikazio intuitibo honen bidez, zuzendutako jardueren programazioa kontsultatu eta erreserbak egin daitezke, oharrak eta berrikuntzak unean bertan jaso, eta kiroldegira sartzeko QR kodea erabili.

Horrez gain, kiroldegian zein modu autonomoan egiteko entrenamendu-saioak eta nutrizio-programa pertsonalizatuak kontsultatzeko atala du, bakoitzaren kirol-jardueraren jarraipen zehatza eginez. Aplikazioa doan deskargatu daiteke "Antzizar" bilatuz Google Play zein App Store dendentan. Informazio osoa: www.antzizar.eus



Conecta con Antzizar: Nueva App para llevar los servicios del polideportivo en el móvil

El Ayuntamiento de Beasain presenta la nueva App móvil de Antzizar Kiroldegia para el curso 2026-2027. La herramienta permite consultar y reservar actividades dirigidas, acceder al polideportivo mediante código QR, recibir avisos y seguir planes de entrenamiento y nutrición personalizados las 24 horas. Disponible gratis en Android e iOS ("Antzizar"). Toda la información en: www.antzizar.eus logrando un gran éxito de asistencia.

Gazteleku berriak ateak irekiko dizkio zientziari Bizilabe programarekin

Beasaingo Udalak sustatutako Bizilabe aisialdi-programa berritzailea urriaren 6an abiatuko da, lanak amaitzear dituen Gazteleku berrian (Oriamendi kalea, 4). Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gazteei zuzendutako ekimen estrategiko honen helburua da herriko neska-mutikoak zientzia, teknologia eta sormenaren mundura erakartzea, esperimendu praktikoan eta proiektu propioen bidez.



Eskualde industrial honetan, Udalak lehentasuna eman dio gazteengan gaitasun teknologikoak indartzeari eta nesken parte-hartzea sustatzeari, emakume ikertzaileen lana hurbilduz eta erreferente berriak sortuz.

Topagune berri honek gazteen garapen pertsonala eta harreman osasuntsuak bultzatuko ditu. Tailerrak astearteetan egingo dira, bi txandatan (17:00-18:30 eta 18:30-20:00). Informazio gehiago jasotzeko edo zalantzak argitzeko, jo bizilabe.elhuyar.eus webgunera.

El nuevo Gazteleku acogerá el programa científico Bizilabe

El programa de ocio científico Bizilabe, promovido por el Ayuntamiento de Beasain para jóvenes de 5.º y 6.º de Primaria, arrancará el 6 de octubre en el nuevo Gazteleku (Oriamendi kalea, 4). Esta iniciativa busca despertar vocaciones tecnológicas y fomentar la presencia

de chicas en la ciencia mediante experimentos prácticos los martes por la tarde. Para más información sobre el programa, consulte la web bizilabe.elhuyar.eus



Kultura bizi eta partekatu Beasainen!

Udazkenak bizitasuna dakar berriz ere gure herriko kale, plaza zein aretoetara. Adin eta gustu guztietarako kultur eskaintza zabala izango da: musika, antzerkia, dantza, euskal mitologia, familia-tailerrak eta tokiko sortzaileen proposamenak.

Aurtengoan, kultura gure herri-sarearen parte diren belaunaldi zein beasaindar berriekin gozatzeko aukera izango dugu.

Zatoz, parte hartu eta egin kultura gure eguneroko bizitzaren parte!

¡Vive y comparte la cultura en Beasain!

El otoño vuelve a llenar de vida y puntos de encuentro nuestras calles, plazas y recintos: música, teatro, danza, mitología vasca, talleres familiares y la creatividad de nuestras asociaciones y creadores locales.

¡Participa y haz de la cultura parte de nuestra vida cotidiana!



UDAZKEN
2026
KULTURALA
OTOÑO - CULTURAL

Irailaren 25etik azaroaren 8ra
Del 25 de septiembre al 8 de noviembre

(1. atala: irailaren 25etik urriaren 23ra
1ª Parte del 25 de septiembre al 23 de octubre)

 www.beasain.eus


Beasaingo Udala

1.
ATALA



Eskaneatu QR kodea egitarau osoa deskargatzeko eta ezer ez galtzeko.

Escanea el código QR para descargar el programa completo y no perderte nada.